



ALBOAN



Lehen Afrika Plana indarrean zegoen bitartean Espainiaren eta Mendebaldeko Afrikaren artean izandako migrazio-politikak eta garapenerako lankidetzak-politikak



Lehen Afrika Plana indarrean zegoen bitartean Espainiaren eta Mendebaldeko Afrikaren artean izandako migrazio-politikak eta garapenerako lankidetzak-politikak



ALBOAN

Aita Lojendio kalea 2 • Bilbo 48008
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañain Etorbidea 2 • Iruñea 31011
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda kalea 7, 4. ezk. • Donostia 20001
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org

Monseñor Estenaga 1 • Vitoria-Gasteiz 01002
Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676
alboanar@alboan.org
www.alboan.org

ENTRECULTURAS

Pablo Aranda 3 • Madrid 28006
Tel.: 902 444 844 • Faxa: 915 902 673
entreculturas@entreculturas.org
www.entreculturas.org

Txostenaren koordinatzaileak:

Cristina Manzanedo (Entreculturas), Mary Tere Guzmán (Alboan)

Egileak:

Nerea Azkona. Antropologoa da, eta Migrazioak eta Gatazkak masterra egin du. Nazioarteko Ikasketetako doktoretza egiten ari da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Ikertzaileak Prestatzeko eta Hobetzeko beka du.
nerea_azkona@ikasle.ehu.es

Jon Sagastagoitia sj Ekintza Politikoak eta Sareak arloko teknikaria da ALBOAN Fundazioan, Bilbon kokatutako Jesusen Lagundiaren Garapenerako GKEan.
j.sagastagoitia@alboan.org

Argitaratze data: Otsaila 2011
Itzulpena: Elhuyar
Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.
Inprimatzailea: Lankopi S.A.
Lege-gordailua: Bi-240-2011

Lan honen erreproduktzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburua aipatzen baldin bada.

Edukien aurkibidea

Sarrera	9
1. Migrazio-politiken eta garapenerako lankidetzaren politikaren Europako esparru arauemailea	13
1.1. Ikuspegi globala, Europako migrazio-politikaren estrategia	14
1.2. Lankidetzaren erlazioak Afrikarekin: Cotonútik Rabatera	15
1.3. Garapeneraren aldeko politikaren koherentzia eta migrazioak	19
2. Espainiaren kasua. Belaunaldi berriko hitzarmenak eta garapenerako laguntza ofiziala, lehen Afrika planaren esparruan (2006-2008)	23
2.1. Immigrazio gaitan lankidetzarako esparru-hitzarmenak	25
2.2. Espainiak Mendebaldeko Afrikara bideratutako laguntza	28
2.2.1. Lehentasunezko herrialdeak	28
2.2.2. Bideratutako funtsak	29
3. Garapenerako lankidetzaren Afrikako migrazio-kontrolen interesaren alde erabili da?	35
3.1. Espainiar estatuko eragile ezberdinen artikulazioa	35
3.2. Espainiak Afrikako herrialde bakoitzarekin duen politikaren laburpena	36
3.2.1. Cabo Verde: baterako zaintza	36
3.2.2. Gambia: lehenengo eta alde batera utzia	36
3.2.3. Ginea Bissau: aberriratzetik belaunaldi berrira	36

3.2.4. Gineako Errepublika: belaunaldi berriko bigarren hitzarmena	38
3.2.5. Mali: belaunaldi berriatik lankidetzara	38
3.2.6. Mauritania: Marokoren urratsen atzetik	38
3.2.7. Niger: lankidetzatik belaunaldi berrira	39
3.2.8. Nigeria: aberriratzeko hitzarmena	39
3.2.9. Senegal: “seme bihurria”	39
3.2.10. Hitzarmenik sinatu ez duten beste herrialde batzuk	40
3.3. Laguntzaren kalitatea: migrazio-kontrolar.ekin erlazionatutako proiektuak	40
3.3.1. Ekonomia eta Ogasun Ministerioak kudeatutako GLOa	
3.3.2. Barne Ministerioak kudeatutako GLOa	41
3.3.3. Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak kudeatutako GLOa	46
3.3.4. Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioak kudeatutako GLOa	47
4. Ondorioak eta gomendioak	53
4.1. Ondorioak	53
4.2. Gomendioak	56
I. eranskina	59
II. eranskina	64
III. eranskina	65
Erreferentziako bibliografia	69

Grafikoen - mapen - taulen aurkibidea

o1 grafikoa. Herrialdeentzako GLOan bi aldeko GLOak duen pisu erlatiboa	31
o1 mapa. Aztertutako herrialdeen kokapen geografikoa	43
o1 taula. Europar Batasuneko eta estatu kideetako migrazio- eta lankidetz-politiken lorpen orientatzaileak	13
o2 taula. Migrazioari eta garapenari buruzko Europa eta Afrikako ministroen Lehenengo Konferenziaren gomendioak, Tabat (2006), ikuspegi globalaren hiru ardatzen inguruan egituratua	18
o3 taula. Migrazio-politikaren eta garapenerako lankidetz-politikaren helburuak	21
o4 taula. Mendebaldeko Afrikako herritarrak Espainian, jaiotze-herrialdearen eta -urtearen arabera	24
o5 taula. Espainiar estatuaren eta herrialdeen artean sinatutako migrazio-hitzarmenak eta garapenerako lankidetz-hitzarmenak	27
o6 taula. Herrialdeen sailkapena	28
o7 taula. Herrialdeei emandako GLOko funtsen bilakaera	30
o8 taula. Herrialdeei emandako GLOko funtsen bideratzea	31
o9 taula. Herrialdeei emandako bi aldeko GLOko funtsen bilakaera (Kudeatzaileak)	32

10 taula. Herrialdeei emandako bi aldeko GLOko funtsen bilakaera (Ministerioak)	33
11 taula. Garapenerako lankidetzari, migrazio-arloari eta bi aldeko GLOko funtsei (Estatuko Administrazio Orokorrak emanak) dagokienez sinatutako hitzarmenen zerrenda	37
12 taula. Herrialdeei zorra ezeztatzeko eta berregituratzeko eragiketak	41
13 taula. Herrialdeetan polizia-lankidetzako ekintzak diruz laguntzeko Barne Ministerioak emandako bi aldeko GLOko funtsak	42
14 taula. Herrialdeen polizia-lankidetzara bideratzeko atara den GLOa (zenbakiak eurotan)	44
15 taula. 2007ko polizia-lankidetzaren eremu geografikoaren arabera	45
16 taula. Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak emandako bi aldeko GLOko funts garbiak, herrialdeka	46
17 taula. Noadhiboura (Mauritania) bideratutako eta bi aldeko GLOko funtsekin diruz lagundutako MICTren proiektuak,	47
18 taula. MAECek GLO gisa diruz lagundu dituen enbaxaden administrazio-gastuen bilakaera, 2004-2006	48
19 taula. MAECek GLO gisa diruz lagundutako administrazio-gastuen bilakaera, 2007-2008	48
20 taula. 2008an Cabo Verden diruz lagundu ziren MAEC proiektuak	49
21 taula. Txosten honetan zalantzan jarri diren emandako bi aldeko GLOen laburpena (2004-2008)	51

ILEGALES

El hambre y la violencia gestan inmigrantes en el Sur.
El ojo insomne del Norte vigila sus fronteras.
Los espejismos en los desiertos africanos
ya no dibujan oasis con lagos y palmeras,
sino altos edificios de dicha y de cristal.

Algunos alcanzarán la tierra de sus sueños
ajenos, seducidos.

Como una nueva estrella de David
clavada en la espalda y el costado,
diana segura de desprecios y de rejas,
a todos les impondrán el mismo nombre,
el único nombre tatuado con láser
en su piel oscura: “ilegal”.

Con su mirada de búho los vigilantes
verán en la tiniebla las sombras sigilosas,
y con el husmear de los radares perforarán la oscuridad,
cómplice inútil de la senda prometida.

Las lanchas patrulleras les clavarán en la noche
un arpón de luz en las espaldas clandestinas.

¡Cuántas historias flotarán ahogadas en el agua!

¡Cuánto anonimato se derretirá en el desierto!

Oleadas de emigrantes se arrancan de su campo.

Las raíces al aire sangran tierra fresca.

En lucha infinita nombres familiares arden en el pecho.

Se orientan hacia el Norte, y buscan a tientas pasar
por el ojo de la aguja estrechando la existencia.

Benjamín GONZALEZ BUELTA

“Orar en un mundo roto”, Sal Terrae, Santander, 2002, 33.or.

SARRERA

1990eko hamarkadaz geroztik, eta Milurtekoko Garapen Helburuen eta hauek jasotako diru-laguntzen aurrerapenekin batera, Hegoaldeko herrialdeei laguntzeko emaileek dituzten politiken koherentziaren beharraren inguruan eztabaidatu dute zenbait erakunde aldeaniztunek; besteak beste, Nazio Batuek, Ekonomia Lankidetzarako eta Garapenerako Erakundeak eta Europar Batasunak¹. Gizarte zibilaren mugimenduek ere bultzatu izan dute planteamendu hori, eta, horren arabera, lankidetzapolitikak ez diren horiek (politika ekonomikoak, merkataritza-politikak, migrazio-politikak, ingurumen-politikak, nekazaritzako politikak, politika kulturak, defentsapolitikak, etab.) indartu, mugatu edota kaltetu egin dezakete lankidetzapolitikek sustatu nahi duten garapena. Europar Batasunak “Garapenaren aldeko politiken koherentzia” printzipioa onartu zuen 2005ean. Horrek bermatu nahi du garapenerako lankidetzapolitiken emaitzak eta helburuak kalteturik ez ateratzea gobernu horrek berak gainerako esparruetan aurrera eramandako politiken ondorioz, eta, gainera, beste politika horiek garapenerako helburuak sustatzea, ahal den guztietan. Europar Batasunak lehentasunezko hamaika esparru atzeman zituen garapen-politiken helburuekin sinergiak sustatzeko. Esparru horien artean, migrazio-politika dago: “Europar Batasunak migrazioaren eta garapenaren arteko sinergiak sustatuko ditu, migrazioa garapenerako alderdi positiboa izan dadin” (COM (2005) 134).

Migrazio-politika garrantzia hartuz joan da azken hamarkadan, bai Espainiako agendan, bai Europar Batasuneko agendan. Europar Batasunean bizi ziren atzerritarrek biztanleriaren % 6,4 osatzen zuten 2009an². Hogeita zazpi estatu ki-deetan bizi diren atzerritarren kopurua haziz doa, nahiz eta herrialdeen arabera erritmoa desberdina izan. Azkeneko hamar urteetan, Irlandak kopurua laukoiztu

¹ Intuizio hori 8. helburuan jasota dago: “Garapenerako munduko ituna sustatzea”.

² Iturria: Eurostat: http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/3-07092010-AP/EN/3-07092010-AP-EN.PDF.

du, Italiak hirukoiztu eta Erresuma Batuak bikoiztu. Espainiak oparoaldi ekonomiko izan zuenean, etorkinen kopurua ikaragarri hazi zen. Espainiak 46 milioi biztanle ditu; horietako % 12,3 atzerritik etorritakoak dira, gehienbat azken hamar urteetan etorritakoak.

Europara hainbeste etorkin iristeak estatu kideetako gobernuetan migrazio-fluxuak kudeatzeko modu egokienaren inguruan kezka sortu du. Espainiaren kasuan, Mendebaldeko Afrikan dute harreman estuena migrazio-politikek eta garapenerako lankidetzapolitikek. Batetik, Saharaz hegoaldeko herrialdeetatik Europara egiten diren migrazioen jatorrizko lurraldea edo igarotze-lurraldea da, eta, bestetik, garrantziko lekua du Espainiako garapenerako lankidetzaren barruan. Bi politiken arteko sinergia positiboak balia daitezke, egia esan. Hala, azken urteetan garapenaren aldeko eta pobreziaren aurkako programak jarri ditu martxan Espainiako lankidetzak, Espainiaranzko migrazioak indar handia duen eremuetan. Berez, esku-hartze horiek bat datoz pobreziaren aurkako borrokaren helburuekin, eta ez dira txosten honetan aztertuko. Irizpideak eta argumentuak bilatu nahi izan ditugu, jakiteko Espainiaren bi aldeko lankidetz migrazio-fluxuen kontrolen alde baldintzatuta, menpean edo manipulaturik dagoen. Hori guztia, ikusita migrazio-politikaren garrantzia garapenerako lankidetzapolitikarena baino askoz handiagoa dela.

Zehazki, Espainiar estatuak **Mauritaniarekin** eta migrazio-kontuetako hitzarmenak lortu dituen Mendebaldeko Afrikako³ herrialdeekin (**Cabo Verde, Gambia, Ginea Bissau, Gineako Errepublika, Mali, Niger, Nigeria eta Senegal**) dituen harremanak biltzen dira txosten honetan. Herrialde horietako batzuekin (Mali, Niger eta Senegal), gainera, garapenerako lankidetzahitzarmenak ere baditu Espainiak. 2008a baino lehenagokoak dira hitzarmen horiek denak, Lehen Afrika Plana (2006-2008) eta Lankidetzarako Lehen Gidaplana (2005-2008) bukatu ziren urtearen aurretikoak. Herrialde horiek guztiek Garapenerako Laguntza Ofiziala jaso dute. Zenbaitetan, aipatutako bederatz herrialdeei “hegoaldeko muga” deituko diegu, Saharaz hegoaldeko herrialdeetatik Espainiara egiten diren migrazioen igarotze-lurraldeak eta/edo jatorrizko herrialdeak diren heinean garrantzitsuak direlako.

Hiru zatitan banatzen da txostena. *Lehenengoak* migrazio-politikari eta Afrikarekiko lankidetzari buruz Europak duen esparru arauemailea jasotzen du, bai eta

³ 2008ra arte Espainiak ez zuen hitzarmenik sinatu Mendebaldeko Afrikako gainerako herrialdeekin (Benin, Burkina Faso, Boli Kosta, Ghana, Liberia, Sierra Leona eta Togo), ez migrazioari buruzkorik, ezta garapenerako lankidetz sustatzekorik, baina dagoeneko ematen ziren Garapenerako Laguntza Ofiziala.

migrazioen esparruko Garapenerako Politiken Koherentzia printzipioarekiko hurbilpen bat ere. *Bigarren zatiak* honako hau aztertzen du: lehen Afrika Plana indarrean zegoen bitartean (2006-2008) Espainiak Mendebaldeko Afrikako herrialdeekin sinatutako garapenerako lankidetzahitzarmenak eta migrazioei buruzko bi aldeko lankidetzahitzarmenak. *Hirugarren zatian*, Garapenerako Laguntza Ofizialerako Espainiak dituen bi aldeko funtsak azaltzen dira, urte horietako migrazio-kontrolarekin lotuta daudenak.

Txosten honek oinarritzat hartu ditu egileek alde zuzenetik egin zuten ikerketa eta Nerea Azkona UPV-EHUn egiten ari den doktoretza-tesiaren kapituluetakoa bat.⁴

⁴ Nerea Azkona doktoretza-tesia egiten ari da Euskal Herriko Unibertsitatean, Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Erlazioak eta Zuzenbidearen Historia sailaren Nazioarteko Ikasketak doktoretza-programan: “Garapenerako Politiken koherentzia aztergai: Mendebaldeko Afrikaren eta Europaren arteko migrazio-fluxuen eta garapenerako lankidetzahitzarmenaren arteko erlazio dialektikoa (2005-2012)”.

1. AFRIKAREKIN AURRERA ERAMANDAKO MIGRAZIO-POLITIKEN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZA-POLITIKEN EUROPAKO ESPARRU ARAUEMAILEA

Migrazioei eta garapenerako lankidetzari dagokienez Espainiaren eta Mendebaldeko Afrikako herrialdeen arteko harremanak aztertzeko, komenigarria da Europako erreferentzia-esparrua berrikustea. Hauek dira Espainiako politika, eta zehazki lehen Afrika Plana, baldintzatu duten elementu nagusiak:

01. taula. Europar Batasuneko eta estatu kideetako migrazio- eta lankidetzapolitiken lorpen orientatzaileak		
	Migrazio-politika	Lankidetzapolitika
1985	Schegen hitzarmenak	
1999	Amsterdameko ituna	
	Tampereko Europar Kontseilua	
2000		Cotonúko ituna (EB-AKOBeko herrialdeak)
		Milurtekoko Garapen Helburuak (NB)
2005	Ikuspegi globala	Garapen Politiken Koherentzia (ELGA, EB)
		EB-Afrika estrategia
2006		Rabateko konferentzia (EB-Afrika)
2008	Immigrazioaren eta Asiloaren Europako ituna	
	Lisboako ituna	
2010	Stockholmeko Programa	

Iturria: geuk egina.

1.1. Ikuspegi globala, Europako migrazio-politikaren estrategia

Europako migrazio-politika estatu kide bakoitzaren eskumena zen hasiera batean. Baina barne-mugarik gabeko esparruan, herrialde bateko sarreraren kudeaketak Europar Batasuneko lurralde osoari eragiten dio. Horregatik, Schengen Hitzarmenaren bidez (1985), instituzionalizatu egin zen mugak kontrolatzeko Europako herrialdeen arteko lankidetzak, eta bisen politika bateratua ezarri zen. 1999an, Amsterdameko Itunak⁵ immigrazioari eta asiloari buruzko Europako politika bateratua sortzeko bidea eman zuen. Horren oinarriak urte berean zehaztu ziren, Tampereko Europar Kontseiluan.

2005ean, EBko estatuburuak eta gobernuburuak Hampton Courten bildu ziren (Erresuma Batua), eta migrazioak kudeatzeko estrategia globalagoa ezartzea adostu zuten, zeinari “migrazio-politikaren ikuspegi globala” izena eman zaio (COM(2005) 621 final; COM(2006) 735 final; COM(2007) 247 final). Planteamendu berri horrek erakusten du Europar Batasunak sektoreen arteko esparru bateratua sortu nahi duela migrazioa modu koordinatuan kudeatu ahal izateko, elkarrizketa politikoaren eta jatorrizko herrialdeekiko lankidetzaren bidez. Ikuspegi horren hiru ardatzak hauek dira:

- *Legezko migrazioa* sustatzea. “Egonaldi-eskubidea eman zaien pertsonak hartzeko ingurune egokia da eta izango da Europa, nahiz langile etorkinak, nahiz haien familiako kideak, nahiz ikasleak nahiz nazioarteko babes behar duten pertsonak izan” (COM(2008) 359 final).
- *Legez kanpoko migrazioa* saihestea eta jazartzea. “Beharrezkoa da legez kanpoko immigrazioaren eta horrekin lotutako delituen aurka egitea, banakako segurtasunari buruz gizarteak dituen kezkek orekatzeko. Beharrezkoa da legez kanpoko enpleguari aurre egitea, horrek nagusikeria sortzen duelako eta banakako eskubideak eta askatasunak urratzen dituelako. Legezko im-migrazioa kaltetzen du, eta kohesioa eta lehia leiala zailtzen ditu” (COM(2008) 359 final).
- *Migrazioaren* eta *garapenaren* arteko lotura optimizatzea. Ardatz horrek elkarrekin lotzen ditu migrazioak eta nazioarteko garapenerako lankidetzak (migrazioen jatorrizko herrialdeekiko eta igarotze-herrialdeekiko lankidetzak),

⁵ Argibide gehiago nahi izanez gero, ikusi Amsterdameko Ituna (1999), IV. titulua, 61. artikulua: “Bisak, asiloa, immigrazioa eta pertsonen zirkulazio askearekin lotutako beste politika batzuk”. Han aitortzen da migrazio-politikaren inguruan EBk duen erantzukizuna. Helburu nagusia zen migrazio-fluxuen kudeaketa hobetzea jokabide koordinatuaren bidez, aintzat hartuta EBren egoera ekonomikoa eta demografikoa.

eta, horrela, migrazioaren fenomenoaren ikuspegi ulergarri bat hartzen da. Batetik, epe ertainera, migrazioak geldiaraziko dituen neurri gisa hartzen da garapenerako lankidetzaz, jatorrizko herrialdeen garapena sustatzen baitu. Bestetik, garapenerako lankidetzari erronka eta aukera berriak eskaintzen dizkiote migrazioek; esaterako, bidalketetan, “adituen ihesean”, migrazio zirkularrean eta hegoaldeko hegoalderako migrazioan.

2008an, Europar Batasuneko lehendakaritzan Frantzia zegoenean, Europar Kontseiluak *Immigrazioaren eta Asiloaren Europako Ituna* onartu zuen. Dokumentu politiko horrek migrazioari buruzko adostasun batzuk jaso zituen, eta legez kanpoko immigrazioaren kontrol-ardatzari garrantzi handiago eskaini zion, ikuspegi globalaren gainerako bi ardatzekin alderatzen bada. Urte bereko abenduan, estatu kideetako estatuburuak eta gobernuburuak *Lisboako Ituna* sinatu zuten, eta, horren bidez, Europar Batasunari eta estatu kideei migrazio-eskumen partekatuak eman zizkieten, Europan “askatasuna, segurtasuna eta justizia” nagusitu daitezzen (2.c. Artikulua). Bukatzeko, Europar Kontseiluak bost urterako egin duen plan bat da *Stockholmeko Programa* (2010-2014), egun indarrean dagoena, eta Europan askatasuna, segurtasuna eta justizia nagusitzea helburu duena. Plan horren kapituluetako bat migrazio-eta asilo-politikari eskainia dago, eta hurrengo urteetan hiru ardatz horien inguruko neurriak garatzea du helburu.

Europako esparru arauemailea finkatzeaz gain, Europako aurrekontuen funtsak baliatuz, ikuspegi globala garatuko duten hainbat ekimen jarri ditu martxan Europar Batasunak azken urteetan⁶. Horien barruan, legez kanpoko immigrazioaren aurka egiteko baliabide- eta programa-kopuruak nabarmen gainditzen du ikuspegi globalaren gainerako bi dimentsioak garatzera bideratutakoena, eta, gaur egun, legez kanpoko immigrazioaren aurkako borroka funtsezko atala da Europako immigrazio-politika bateratuan. Esparru horretako programa ezagunenetako batzuk hauek dira: AENEAS (fluxuen kudeaketa legala), FRONTEX (kanpoko mugen lankidetzazko operatiboa kudeatzeko Europako Agentzia), RABIT (mugetan azkar esku hartzeko taldeak) edo EUROSUR (mugak ikuskatzeko Europako sistema).

1.2. Lankidetzaz-erlazioak Afrikarekin: Cotonútik Rabatera

2009an, Europar Batasunak eta estatu kideek 49.000 milioi euro bideratu zituzten garapena sustatzera. Hori dela eta, munduko emaileen artean lehenengo

⁶ Argibide gehiago: “Elkartasuna eta migrazio-fluxuen kudeaketa” programa orokorra, 2007-2013 urteen artean 7.113 mila milioi ? ingururekin diruz lagundu zena COM(2005)123 final.

postuan dago Europa, alde handiarekin gainera (munduko diru-laguntzen % 56 ematen du). Europako Batzordeak kudeatutako kanpoko diru-laguntza 12.000 milioi eurokoa izan zen 2009an⁷.

EBren eta Afrikaren arteko harremanak esparru zabal batean garatu izan dira, Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO) baino haratago; esparru hori bi eskualde handiren arteko komunikazioaren inguruan egituratuta dago: Afrikako, Karibeko eta Ozeano Bareko Herrialdeen Elkartearen (AKOB) barruan dauden Afrikako herrialdeak (79). Horien artean daude ikerketa honetarako hautatutako Afrikako Mendebaldekoak. Harreman historikoa dela eta, EBk harreman oso ona du AKOBeko herrialdeekin, eta hura garatuz joan da kolonialismo-garaitik Loméko Hitzarmena (1975) sinatu zen arte. Hitzarmen hori *Cotonúko Hitzarmena* bilakatu zen 2000. urtean.

Migrazioei eta garapenari dagokienez, Espainiaren eta Afrikako herrialdeen artean berriro onartzeko sinatutako hitzarmenen aurrekotzat har daiteke Cotonúko Hitzarmeneko 13. artikuluko 5. atala, Europar Batasunean legez kanpo bizi diren afrikarrak Afrikako herrialdeek berriro onartu behar dituztela jasotzen baitu.

13.5. a) “Ministro Kontseiluak elkarrizketa politikoaren esparruaren barruan zertuko ditu legez kanpoko immigrazioarekin lotutako gaiak, eta, hala badagokio, prebentzio-politika egiteko baliabideak ezarriko ditu. b) Esparru horretan, aldeek zehazki adosten dute pertsonen eskubideak eta duintasuna bermatuko dituztela legez kanpoko etorkinak jatorrizko herrialdera itzultzeko aurrera eramandako jardunbide guztietan. Horri dagokionez, agintari interesdunek beharrezkoak diren erraztasun administratiboak emango dizkiete itzuli behar duten etorkinei. c) Horrez gain, aldeek honako hau ere adosten dute: i) AKOBeko edozein herrialdeetan legez kanpo bizi diren beren herritarren itzulera onartu eta berriro hartuko dituzte Europar Batasuneko estatu kide guztiek, baldin eta herrialde horrek hala eskatzen badu, izapide gehiago egin gabe. Europar Batasuneko edozein estatu kideetan legez kanpo bizi diren beren herritarren itzulera onartu eta berriro hartuko dituzte AKOBeko herrialde guztiek, baldin eta estatu horrek hala eskatzen badu, izapide gehiago egin gabe”.

Milurteko berriaren hasieran, Europar Batasunak elkarrizketa berri bati ekin zion Afrikarekin, kontinente mailako estrategia berri bat eratzeke asmoz: *EB-Afrika Elkarte Estrategikoa*. EB eta Afrikaren arteko lehenengo goi-bilera Kairon izan zen

⁷ Ikus EuropeAid (AidCo): http://ec.europa.eu/europeaid/index_en.htm

(2000), eta han ekintza-plan berri bat onartu zen sei lan-esparruren eta hiru jarraipen-mekanismoren inguruan: estatuburuaren eta gobernuburuaren arteko goi-bilerak, horien artean egiten diren ministroen bilerak eta bi eskualdetako taldeek parte hartzen duten bilerak.

Esparru horretan, 2006an Rabaten egindako *Migrazioari eta garapenari buruzko Europa eta Afrikako ministroen lehenengo konferentziak* berrogeita hamazazpi herrialdetako ministroak bildu zituen. Migrazio-fluxuak kudeatzeko herrialde horien arteko elkarte estua sortzeko konpromisoa hartu zuten han, migrazioaren fenomenoaren pobrezia-aren aurkako borrokaren barruan maneiatu behar delako ueste sendoa oinarritzat hartuta (Partenariat euro-africain pour la migration et le développement, 2006). Hala, herrialdeen artean ardurak partekatzeo ideia sortu zen; *“Rabateko espiritua”* izendatu da. Konferentzian era askotako Ekintza Plan zabal bat onartu zen hiru ardatzen inguruan, 2. taulan ikusi daitekeen bezala.

2008aren bukaeran, Europar Batasuneko lehendakaritza Frantziaren esku zegoenean, *Migrazioari eta garapenari buruzko Europa eta Afrikako ministroen bigarren konferentzia* egin zen Parisen, eta Europako, Afrikako eta nazioarteko erakundeetako laurogei ordezkari-ita baino gehiago bildu ziren. Han, Ekintza Plana berrikusi zen, eta ikuspegi globalaren hiru ardatzen inguruko lankidetz-iprograma onartu zen zenbait urterako. Programa hori 2008an egindako adituen hiru bileretan lortutako ondorioetan oinarritu zen. Lehenengoak legezko immigrazioa izan zuen mintzagai (Rabat); bigarrenak, legez kanpoko immigrazioaren aurkako lehia (Ouagadougou); eta hirugarrenak, immigrazioa eta garapena (Dakar). Guztietan, kontinenteen arteko lankidetz-iprozesuan eta elkarrizketan aurrera egiteko neurri zehatzak hartu ziren.

Azkenik, EBk Europako Auzotasun Politika⁸ jarri zuen martxan 2004ean. Cotonú eta EB-Afrikako goi-bilerek-kin batera, EB eta Afrikaren arteko harremanek oinarritzat hartzen dituzten hiru esparru nagusiak dira. Horien guztien agendan migrazioak eta garapenerako lankidetz-ita daude, beste gai batzuen artean, baina egia da

⁸ Europako Auzotasun Politika (EAP) EBk 2004ean egindako hedapenaren barruan garatu zen, EB hedatua- ren eta gure auzokoen artean ager zitezkeen hausturak saihesteko, batetik, eta guztien egonkortasuna, segurtasuna eta ongizatea sendotzeko, bestetik. EBk harreman pribilegiatua eskaintzen die auzokoei, eta balio komuneko elkarren arteko konpromisoa sustatzen du (demokrazia eta giza eskubideak, zuzenbi- deko estatua, gobernu ona, merkaturako ekonomiaren eta garapen jasagarriaren oinarriak). EBrekin lurre- ko edo itsasoko mugak dituzten herrialdeei aplikatu dakieke EAPA: Aljeria, Armenia, Azerbaijan, Bielorrusia, Egipto, Georgia, Israel, Jordania, Libano, Libia, Moldavia, Maroko, okupaturako lurralde palestinarra, Siria, Tunisia eta Ukraina. Errusia EBren auzokoa den arren, gure harremanak berezko Elkarte Estrategiko- aren bidez garatzen dira. Europako Auzotasun Politikaren elementu nagusia EB eta estatu sozio bakoitzaren artean adostutako EAPren bi aldeko planak dira. Plan horiek berrikuntza politiko eta ekonomikoak ezartzen dituzte, epe motzeko nahiz ertaineko lehentasunekin.

02. taula. Migrazioari eta garapenari buruzko Europa eta Afrikako ministroen Lehenengo Konferentziaren gomendioak, Rabat (2006), ikuspegi globalaren hiru ardatzen inguruan egituratua

Rabateko Ekintza Plana

1) *Migrazioa eta garapena*

- Etorकिन jatorrizko herrialdeetan lagundutako garapenerako proiektuak.
- Etorकिनak mikroenpresa bat sortzera jatorrizko herrialdeetara itzultzeko laguntzak.
- Lagundutako garapena sustatzeko finantza-baliabideak martxan jartzea.
- Afrikako herrialdeak garatu ahal izateko behar adina eskumen egon daitezen bermatzea.
- Ezagutza eta egiten jakitea garatzea.
- Prestakuntzari dagokionez, lankidetzaz indartzea.
- Bi kontinenteetako unibertsitateak Afrikako gazte gehiago hartzera bultzatzea.
- Erakunde zientifiko eta teknikoaren arteko elkarteak garatzea.

2) *Legezko migrazioen kudeaketa*

- Legezko migrazioa kudeatzeko lankidetzazko programak ezartzea.
- Pertsonen zirkulazioa errazteko neurriak hartzea.
- Immigrazioaren lege-baldintzak hobetzea eta bateratzea.

3) *Legez kanpoko immigrazioa*

- Legez kanpo migratzeak dakartzan arriskuen kontzientzia handitzeko neurriak.
- Poliziaren eta justiziaren lankidetzazko legez kanpoko immigrazioaren aurkako borrokan, mugen eta itsas bideen kontrolean koordinazio handiagoa.
- Igarotze- eta abiatze-herrialdeek mugak kontrolatzeko duten ahalmena indartzea.
- Biktimei laguntza ematea.
- Europara legez kanpo emigratu zuten hiritarrak beren herrialdeetan berriz onartzeko sistema eraginkorrek martxan jartzea.
- Pertsonen duintasuna eta oinarrizko eskubideak errespetatzeko erregelak argitzea.
- Europa eta Afrikaren artean behatoki bat sortzea, mugimendu demografikoaren segimendua egiteko.

ekimen horiek guztiak Europar Batasuneko interesen arabera bideratuko direla hein handi batean. Parte-hartze aktiboa eta migrazio-fluxuen kudeaketaren erantzukizun partekatua dira EBk Afrikako herrialdeei eskatzen diena, baina gauzatze-akordioen eta araudien formulazioa Europar Batasunaren mende dago, gehienbat.

1.3. Garapenaren aldeko politiken koherentzia eta migrazioak

Garapenaren aldeko Politiken Koherentziaren printzipioak (GPK) bermatu nahi du garapenerako lankidetzaren politikaren emaitzak eta helburuak kalteturik ez ateratzea gobernu batek gainerako esparruetan aurrera eramandako politiken ondorioz, eta, gainera, beste politika horiek garapen-helburuak babestea, ahal den guztietan. Gaur egun, Europar Batasunaren, estatu kideen⁹ eta Nazio Batuen Erakundearen diskurtsoetan gehitu da printzipio hori; hala ere, emaitza zehatzak eskasak dira oraindik.

Batzordeak, Parlamentuak eta Kontseiluak onartutako 2005eko Garapenari buruzko Europako Adostasunak honela definitzen du koherentzia-printzipioa: “Garapenerako Laguntzak ez diren politikek garapen bidean dauden herrialdeei Milurtekoko Helburuak lortzen lagundu diezaieten hartutako konpromisoa”. Lehenetsunezko hamabi arlo ditu EBk esparru horretan aurrera egiteko adostu duen lan-planak, non sinergia positiboak bilatuko diren eta giza garapenaren inguruko eta pobrezia-aren aurkako beste politika batzuen efektu negatiboak saihestuko diren; zehazki, arlo hauek: merkataritza, ingurumena, klima-aldaketa, segurtasuna, nekazaritza, arrantza, lanpostu duina, migrazioak, ikerketa, informazio-gizartea, eta garraioa eta energia.

2007an egindako Batzordearen lehenengo jarraipen-txostenaren arabera (COM (2007) 545 final), aurrerapenak egin dira, nahiz eta txikiak izan. Gai horren aldeko esparru politikoa ezarri da, eta, horri esker, Europako erakundeak jabetzen ari dira garapen-politikak ez diren politika europarrek kanpoan duten eraginaz. Gainera, Europar Batasunaren eta estatu kideen antolaketa-mekanismoak hobetu dira. Hala eta guztiz ere, txostenaren arabera, Europar Batasunean estatu kideetan baino aurrerapen gehiago egin dira, eta, azpimarratzen duenez, estatu kideen eta garapen bidean dauden herrialdeen arteko interes-gatazkek dira politiken

⁹ Espainiar estatuan, Garapenaren aldeko Politiken Koherentziarekin dagoen konpromisoa zehazki jasota dago hauetan: 1998ko Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Legearen 4. Artikuluan, Espainiako Lankidetzarako Gidaplanean, GPKri buruzko txostena egiteko Lankidetzaren Kontseiluari emandako agindua jasotzen duen Errege Dekretuan eta Urteko Lankidetzaren Planetan (ULP).

koherenziarentzako oztopo handiena. Horrez gainera, Batzordeak dio garapenerako lankidetzak kudeatzen ez duten ministerioek ahalmen urria eta sentsibilizazio falta dutela. Batzordearen txostenak, bukaeran, Europar Batasunari gomendatzen dio aurrerapen zehatzak ahalbidetuko dituzten neurri zehatzak hartzeko, elkarrizketa politikoa martxan jartzearen ondorioz eskualde eta herrialde mailan garapen bidean dauden herrialdeekin lortutako aurrerapenak oinarri hartuta¹⁰.

Koherenziaren barruan, bi esparru bereizten ditu ELGAK, kanpokoa eta barnekoa. *Kanpoko* koherentzia ondoko biak batuz lortu behar da: a) herrialde emaile ezberdinek laguntza jasoko duen herrialde zehatz batera bideratutako politikak eta b) herrialde emailearen eta herrialde hartzailearen arteko politikak. *Barneko* koherentzia bi hauen artean lortu behar da: a) emaileen garapenerako lankidetzak-politika ezberdinak eta b) herrialde bateko politika desberdinak. Txosten honek azkenekoa soilik aztertuko du, hau da, Espainiar estatuak Mendebaldeko Afrikara begira egindako garapenerako lankidetzak-politikaren barneko koherentzia eta eskualde horri lotutako migrazio-politika, bi alderdi horiek aztertzen dituzten Afrika Planaren helburuak oinarri hartuta.

Akademiak eta gizarte zibilaren erakundeek hainbat ikuspegitik definitu izan dute GPK, migrazioen alderdiari dagokionez. Koherentzia gisa ulertu daiteke migrazio-politikek eta garapenerako lankidetzak-politikek partekatutako erantzukizuna, non helburu partekatuak lortzeko lan egiten duten (Alberdi eta Bidaurretzaga, 2008b; Rico Pérez, 2008). Koherentzia hori bientzat onuragarria den heinean, jotzen da migrazioaren eta garapenaren arteko erlazioa bi politikentzat –migrazioena eta lankidetzarena– izan daitekeela onuragarria, baita bi herrialdeentzat ere –jatorrizkoak eta helmugakoak–. Helburu partekatuen ikuspegitik aztertzen bada GPK, galdera da zein den migrazio- eta garapen-politikek duten helburu partekatua.

Beste egile eta erakunde batzuek diotenez, batzuetan ezinezkoa da bientzat onuragarria izatea, eta, gainera, migrazio-politikak kalte egin diezaioke garapenerako lankidetzak-politikari. Horregatik, errespetuaren alde egiten da, eta politiken arteko interferentzia saihestu nahi da (Fride, 2009). Ikuspegi horretatik, aztertu beharko litzateke garapenerako lankidetzak-politika koherentea den pobreziaren

¹⁰ Espainiako garapenerako lankidetzak aztertu zuen GLBk 2007an, eta, GPKren babes politikoa goraipatu zuen arren, aurrerapen zehatzak bermatuko dituen erabilera sistematikoago eta estrategikoago baten beharra azpimarratu zuen.

aurkako borrokaren helburuarekin, edo migrazio-kontrolaren eraginez interfe-
rentziarik sortu den.

Historian zehar, urriak izan dira migrazio-politikari eta garapenerako lankide-
tza-politikari buruzko baterako gogoeta eta lan artikulatuen eta partekatuen
esperientziak. Izan ere, esparru batzuetan gainjartzen diren arren, politika ho-
riek ministerio baten baino gehiagoren mende daude –Barne Ministerioa, Lan
eta Immigrazio Ministerioa eta Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Minis-
terioa–. Migrazio-politikaren kanpo-dimentsioari dagokionez, mugen kontrolean
jarri da arreta handiena. Garapenerako lankidetzak, berriz, migrazioaren
auziari heldu diote orain dela gutxi, aintzat hartuta “ jatorrizko herrialdeak
zenbat eta gehiago garatu, orduan eta migrazio gutxiago egongo dela gure he-
rrialdeetan”. Baina hori ez da beti egia, garapenerako lankidetzak-programa
batzuek bizi-itxaropenak erretzen baitituzte, eta migratzeko hautatzen diren
herrialdeen arteko lotura sortzen baitute (Gómez Gil, 2008). 3. taulan sinplifi-
katuta adierazten dira politika horien helburuak eta aurkakotasuna/bat-egitea
sor dezaketen politiken esparruak.

Kanpo-harremanek hiru esparru barne hartzen dituzte: dimentsio politikoa, di-
metsio ekonomikoa edo merkataritza-dimentsioa eta garapenerako lankidetzak.

03. taula. Migrazio-politikaren eta garapenerako lankidetzak-politikaren helburuak								
GPK migrazio-politikaren eta garapenerako lankidetzak-politikaren artean								
Ikuspegi globalaren oinarriak				KOHERENTZIA?	Kanpo politikaren oinarriak			
ESPARRUAK / ARDATZAK	Legez kanpoko immigrazioaren aurkako borroka		Legezko immigrazioa sustatzea		Migrazioen erlazioa garapenarekin	Merkataritza-politika	Kanpo-politikaren dimentsioa	Garapenerako lankidetzak
ERAGILEAK	Barne Ministerioa	Defentsa Ministerioa	Lan Ministerioa		Kanpo Ministerioa	Merkataritza Ministerioa	Kanpo-arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioa	
ERRESPECTUA? HELBURU PARTEKATUAK?			Migrazio-politikaren kanpoko dimentsioa	Baldintzapena? Menpekotasuna? Manipulazioa?	GLO			
HELBURUAK	Migrazio-fluxuen kontrola Segurtasuna		Eskulana	Pobreziaren aurkako borroka, MGH edo mugen kontrola?	Enpresa espainolaren garapena	EB eragile globala	Pobreziaren aurkako borroka MGH	

Iturria: geuk egina, Azkonaren datuetatik abiatuz (2010).

Azken hori da herrialdeko agenda politikoan garrantzi txikiena duena. Hiru esparruen arteko erlazioa eta merkataritza-interesen eta/edo kanpo-politikaren araberako manipulatzeko arriskua direla eta, gomendagarria da garapenaren aldeko politiken koherentziaren irizpideetan oinarritutako segimendua egitea.

Bestalde, ikuspegi globalaren hirugarren ardatzak, migrazioaren eta garapenerako lankidetzaren arteko erlazioari buruzkoa, kanpo-dimentsioa erantsi du Batasuneko migrazio-politikan, eta, horri esker, GPKren esparrua migrazio-politikatara zabalduko da. Kasu bakoitzeko ministerio eskudun bat izan arren, erraz ikusten da migrazio-politikaren kanpo-dimentsioa eta garapenerako lankidetzapolitika gainjarri egiten direla. Hori hala izanda, migrazio-politikak jatorrizko herrialdeen garapena susta dezake, eta lankidetzarekin helburuak partekatu. Ikuspegi globalaren beste ardatzetan oinarrituz, aztertu beharko litzateke migrazio-fluxuen kudeaketa-politikek zer-nolako eragina duten jatorrizko herrialdeetan eta igarotze-herrialdeetan.

Horrenbestez, uste dugu migrazioak eta garapena legez eta modu positiboan lotzeko esparru bat egon litekeela, gaiari ministerioen arteko esparru politikotik heltzea eskatuko lukeena. Hurrengo ataletan aztertuko dugu koordinazioa zenbaterainokoa den eta garapenerako laguntzak migrazioaren kontrolarekin lotutako interesekiko independenteak ote diren (ez datoz bat helburuetan) Espainiaren migrazio-politikarentzat funtsezkoak diren herrialdeetan, esaterako Mendebaldeko Afrikako herrialdeetan.

2. ESPAINIAREN KASUA. BELAUNALDI BERRIKO HITZARMENAK ETA GARAPENERAKO LAGUNTZA OFIZIALA, LEHEN AFRIKA PLANAREN ESPARRUAN (2006-2008)

Espainian, Lehen Afrika Planak jaso zituen lehen aldiz modu globalean Saharaz hegoaldeko Afrikarekiko harremanak, 2006-2008 bitartekoak (lan honetan aztergai). Ondoren, bigarren Afrika Plana etorri zen, 2009-2012 urteetarako, egun indarrean dagoena.

2006-2008ko Afrika Planak Espainiako kanpo-ekintzaren zazpi helburu zehazten ditu, eta horiek “gure interes nazionalak defendatzeko eta interes orokorra bermatzeko sortu dira: bakea, demokrazia, giza-eskubideen defentsa, pobrezia gaitztea, migrazio-fluxuak erregulatzeko laguntza, harreman ekonomikoak eta merkataritza-harremanak sendotzea, elkarren arteko ezagutza eta trukeak sustatzea...”. I. Afrika Planak (2006-2008) (I. AP) kritikak jaso zituen garapenerako lankidetzaren esparrutik; inprobisazio hutsaren emaitza¹¹ zela leporatzen zioten, eta Afrikaren garapena sustatu ordez migrazio-fluxuen kontrola eta Espainiako enpresak nazioartekotzea lehenestea.

I. AP egin eta aurrera eraman zen migrazio-testuingurua bi gertaerek baldintzatu zuten: batetik, 2006ko “pateren krisia”, eta bestetik, Espainia eta Marokoren arteko lurreko mugako 2005eko gertaerak, non hesia zeharkatu nahi zuten zenbait afrikar hil baitziren ekintza polizialaren ondorioz. Komunikabideek Afrikako migrazio-fluxuen handitzearen berri eman zuten, eta, horren ondorioz, jende-oldea etortzen ari zelako pertzepzio okerra sortu zen gizartean (Migratzaileen Zerbitzu Jesuita-Espainia, 2009). Egiatan, jatorriz Saharaz hegoaldekoak diren etorkinek

¹¹ Bigarren Afrika Plana (2009-2012) hobea da zenbait arlotan: Espainiako Lankidetzaren Gidaplanean jasotako garapenerako lankidetzari buruzko interesekiko lotura hobetu du; giza eskubideak zehar-helburu gisa hartu ditu, teoriarik behintzat; eta laguntzaren emaila eta hartzaileen arteko koordinazio-borondatea handitu du.

Espainian erroldatutako atzerritarren proportzio oso txiki bat baino ez dute osatzen. 2005ean, Espainiar estatuan zeuden afrikar herritarrak 663.156 ziren; hurrengo urteetan kopurua pixkanaka handituz joan zen, eta 2008an, 813.958 afrikar zeuden Espainian, atzerritarren kopuru osoaren % 15,6 baino ez (Fundación Cei-Migra, 2009). Horien artean, Mendebaldeko Afrikako herrialdeetatik etorritakoak 200.000 baino gutxiago dira.

04. taula. Mendebaldeko Afrikako herritarrak Espainian, jaiotze-herrialdearen eta -urtearen arabera					
	2005	2006	2007	2008	2009
Senegal	28.663	34.070	35.875	45.371	55.212
Nigeria	25.980	29.802	29.814	34.064	37.787
Mali	11.874	14.497	16.564	19.011	22.318
Gambia	11.975	13.627	13.810	15.830	18.214
Ghana	10.361	13.133	12.494	12.856	14.798
Ginea	8.835	9.901	10.014	11.131	12.514
Mauritania	9.254	9.308	8.925	9.572	11.124
Cabo Verde	3.511	3.611	3.781	4.246	4.553
Ginea Bissau	4.668	5.274	5.573	6.550	7.044
Costa de Marfil	1.512	1.759	1.875	2.266	2.788
Sierra Leona	1.816	1.487	1.150	1.142	1.158
Liberia	1.366	1.167	937	947	930
Togo	382	403	385	417	470
Guztira	120.197	138.039	141.197	163.403	188.910

Iturria: geuk egina, Enpleguko Institutu Nazionalaren (INE) datuetatik abiatuz.

Afrika Planak, teorikoki, politiken arteko koordinazioa eta koherentzia errazten du, kanpo-politikaren tresna bakar eta artikulatutzat jotzen baititu bi horiek. Hala, Planaren 2. helburua hau zen: “Espainiak laguntza ematea Saharaz hegoaldeko Afrikan pobrezia-aren aurka borrokatzeko eta hura garatzeko”. Eta 3. helburua, hau: “migrazio-fluxuak ordenatzeko lankidetzaren sustatzea”. Kapituluaren gainerako zatian aztertu da bi helburuen garapena eta bien arteko harremanak.

2.1. Immigrazio gaietan lankidetzarako esparru-hitzarmenak

I. AP egin baino lehen, Espainiak dagoeneko sinatuak zituen immigrazioari buruzko hitzarmenak herrialde batzuekin, legez kanpo zeuden pertsonak beren jatorrizko herrialdeetan berriz onartzeko¹². I. AP indarrean egon zen bitartean, berriz onartze hori migrazio-fluxuak kudeatzeko tresna bakar gisa hartzeari utzi zion Espainiar estatuek; “jatorrizko herrialdeekiko eta igarotze-herrialdeekiko lankidetzaren sustatuko duen migrazio-lankidetzaren eta berriz onartzeko esparru-hitzarmenen sarea sortu nahi du [...], horretarako herrialde aipagarrienekin, hau da, Senegal, Mali, Nigeria, Ghana, Kamerun, Niger, Boli Kosta, Cabo Verde, Ginea Bissau, Ginea Conakry eta Gambiarekin” (MAEC, 2006a)¹³.

Praktikan, I. AP indarrean zegoen bitartean, *Migrazio-lankidetzarako eta berriz onartzeko esparru-hitzarmenak* sinatu ziren Cabo Verde, Gambia, Ginea Bissau, Gineako Errepublikak, Mali eta Nigerrekin. Horregatik sartu ditugu herrialde horiek txostenean. Senegal eta Nigeria ere sartu ditugu, migrazio-arloko hitzarmen batzuk sinatu dituztelako, *Migrazio-lankidetzarako eta berriz onartzeko esparru-hitzarmenak* ez izan arren: Senegalek, bakarrik bidaiatzen duten adin txikikoen emigrazioa prebenitzeko hitzarmena (2007), eta Nigeriak, Aberriratzeko hitzarmena (2001). Amaitzeko, Mauritania ere gehitu da, Lan-merkatuko migrazio-fluxuen hitzarmena (2007) sinatu izanaz gain, Espainiara emigratzen dutenen jatorri- eta igarotze-herrialdea delako.

I. APren 3. helburuak proposatzen du “migrazioaren inguruan [...] ikuspegi orokorra hartzea, kontuan hartuta migrazioaren zergatiak, jatorrizko herrialdeentzat eta Espainiarentzat (helmuga-herrialde gisa) legezko immigrazioak izan ditzakeen efektu positiboak, eta legez kanpoko immigrazioa zer egoeratan sortzen den, efektu suntsitzaileak baititu migrazio-fluxuen jatorrizko herrialdeentzat eta igarotze- eta helmuga-herrialdeentzat” (MAEC, 2006a). Erantzukizun partekatua

¹² Espainiak Mauritaniarekin sinatutako hitzarmenak (herritarrak berriz onartzeko hitzarmenak) barne hartzen du hirugarren herrialde bateko herritarrak ere berriz onartzea, baldin eta Espainiatik igaro badira.

¹³ Aztertutako denbora-tartean hemeretzi bisita ofizial egin ziren, aztergai ziren herrialdeetako eragileak biltzeko helburua zutenak. Horietako sei Espainian izan ziren, eta gainerakoak herrialdeetara egindako bisitak dira; gehienak (hamabi) Afrika Plana indarrean zegoen lehenengo urtean egin ziren. Bisitatutako herrialde guztiek hitzarmen-motaren bat dute Espainiarekin. Harreman konstanteena –sei bisita– Mauritaniarekikoa da, eta, ondoren, Senegalekikoa. Cabo Verdera eta Ginea Bissaura hiruna bisita egin dira, Nigerrera bi eta bakarra Gambiara (2006ko belaunaldi berriko hitzarmena sinatu zen lehenengo herrialdea). Espainia bisitatu duten Afrikako ordezkari guztiak herrialdeetako presidentek edo lehen ministroak izan dira; Espainiak, berriz, funtzio hori MAECeko langileen esku utzi du.

printzipioaren alde ere egiten du I. APk –Cotonúko Hitzarmenean du jatorria ideia horrek–, eta horren arabera, migrazioen kudeaketa jatorrizko, igarotze- eta hel-muga-herrialdeen artean banatu beharreko erantzukizuna da.

I. APren babesean, mugimendu oso handia izan zuen Espainiak 2006 eta 2008 ur-teen artean, Mendebaldeko Afrikako herrialdeekin hamabi hitzarmen berri sinatu baitzituen. Horietako sei immigrazioaren arloko lankidetzarako esparru-hitzar-menak¹⁴ dira, “belaunaldi berriko hitzarmenak” (BBH) deritzenak. Hitzarmen horiek zenbait xedapen dituzte: legez kanpoko immigrazioaren aurka borrokatzekoak, legez kanpoko etorkinak berriz onartzekoak, Espainiar estatuko langileak berriz onartzekoak (Espainiako lan-merkatura sartzeko hitzarmena sinatzen da haie-kin), etorkinak gizarteratzekoak, eta immigrazioaren eta garapenaren arteko erla-zioa indartzekoak. BBHei migrazioaren inguruko gai zehatz bati buruzko hiru hitzarmen erantsi zaizkie, eta garapenerako lankidetzaren hiru esparru-hitzarmen (ikus 5. taula).

Migrazio-lankidetzarako esparru-hitzarmenak gehiago hurbiltzen dira Batasuneko kanpo-politikara, lan-estrategia gisa ikuspegi globala hartzen dutelako. Hala ere, Eu-ropan gertatu den moduan, praktikan legez kanpoko immigrazioa da nagusi, bai Ba-tasuneko migrazio-politikan, bai Espainiakoan. Asínen esanetan (2008:167), hitzar-men horien helburua hau da: “legez kanpoko migrazio-fluxuen aurka borrokatzea eta horiek murriztea, nazioarteko lankidetzaren bidez, migrazio-lankidetzarako eta berriz onartzeko bi aldeko hitzarmenak sinatuz legez kanpoko etorkinen jatorrizko herrialdeekin edo igarotze-herrialdeekin [...]”.

Bestalde, giza eskubideak bermatuko dituen klausula orokorra hitzarmenetan erantsi den arren, hitzarmenek ez dute arautzen migrazioaren kontrola; hori Afrikako herrialde bakoitzaren esku dago. Kontrol hori egiteko baldintzak za-lantzan jarri dira behin baino gehiagotan. Hala, gizarte zibilaren erakundeek (SOS Arrazakeria, 2007; CEAR, 2008, Migratzaileen Zerbitzu Jesuita - Espainia, 2009) behin baino gehiagotan salatu izan dute Afrikako gobernuek egindako migrazio-kontrolak ez dutela gutxieneko berme juridikorik, ezin dela “de fac-to” ez asilorik ez babesik eskatu, eta Saharaz hegoaldeko etorkinak basamor-tuan bakarrik utzi izan dituztela edo baldintza osasungaitzetan barneratze-zentroetan atxiki dituztela.

¹⁴ Zortzi kapitulutan banatutako hemezortzi artikulua dira. Hitzazurea ere badu, eta han eztabaidatzen dira aipatutako ikuspegi globala, asoziazionismoa eta erantzukizun partekatua. Gainera, pertsonak berriz onartzeko prozedura eta bermeei buruzko eranskina gehitu da, aurreko hitzarmenek ez zutena.

05. taula. Espainiar estatuaren eta Mendebaldeko Afrikako hegoaldeko muga osatzen duten herrialdeen artean sinatutako migrazio-hitzarmenak eta garapenerako lankidetzaz-hitzarmenak						
	Aberriratzehitzarmena	Lan-merkatuko migrazio-fluxuei buruzko hitzarmena	Immigrazioari buruzko lankidetzarako esparruhitzarmenak (Belaunaldi Berriko Hitzarmena)	Itsas eremuak batera kontrolatzeko hitzarmena	Bakarrik bidaiatzen duten adin txikikoen emigrazioa sahiesteko hitzarmena	Garapenerako lankidetzako esparruhitzarmena
Mauritania	Madril, 2003/7/1	Nuakchott, 2007/7/25				
Cabo Verde			Madril, 2007/3/20	Praia, 2008/2/21		
Gambia			Banjul, 2006/9/19			
Ginea Bissau	Madrid, 2003/2/7		Bissau, 2008/1/27			
Gineako Errepublika			Conakry, 2006/10/9			
Mali			Madril, 2007/1/3			Madril, 2007/11/23
Níger			Niamey, 2008/5/10			Madril, 2007/3/7
Nigeria	Abuja, 2001/11/12					
Senegal					Dakar, 2006/12/5	Dakar, 2006/10/10

Iturria: geuk egina.

Guztira, denbora-tarte horretan garapenerako lankidetzako hiru hitzarmen sinatu ziren, eta immigrazioari buruzko hamabi. Hala, ikusten da migrazio-politiken eta garapenerako lankidetzaz-politiken pisu erlatiboen artean alde handia dagoela, eta Mendebaldeko Afrikak garrantzi handia duela Espainiarentzat, Saharaz hegoaldeko emigratzaileen jatorrizko eskualdea edo igarotze-eskualdea delako¹⁵.

¹⁵ Migrazio-fluxuen fenomenoak Milurtekoko Garapen Helburuek baino galdera gehiago eragin ditu Espainiako parlamentuko zenbait talderen aldetik.

2.2. Espainiak Mendebaldeko Afrikara bideratutako laguntza¹⁶

2.2.1. Lehentasunezko herrialdeak

Espainiako Lankidetzaren Gidaplanak esparru-dokumentuak dira, eta Espainiaren garapenerako lankidetzaren helburuak, irizpideak, lehentasun sektorialak eta geografikoak ezartzen dituzte. Lehen Afrika Planarekin (2006-2008), 2005-2008ko Gidaplana nabarmendu zen. 6. taulan adierazten da, batetik, nola aldatzen den herrialdeen pertzepzioa planen arabera, eta, bestetik, herrialde horiek garrantzi estrategiko handiagoa izan dutela Afrika Planean.

06. taula. Afrika Plana eta Espainiako Lankidetzarako Gidaplana indarrean zeuden bitartean migrazio-arloko eta/edo garapenerako lankidetzaren arloko hitzarmenak zituzten Mendebaldeko Afrikako hegoaldeko mugako herrialdeen sailkapena		
Herrialdea	2005-2008 Gidaplana¹⁷	2006-2008 Afrika Plana¹⁸
Mauritania	Lehentasunezko herrialdea	Lehentasunezko interesa duen herrialdea
Cabo Verde	Lehentasunezko herrialdea	Interes espezifikoa duen herrialdea
Gambia	-	Interes espezifikoa duen herrialdea
Ginea Bissau	Arreta bereziko herrialdea	Interes espezifikoa duen herrialdea
Gineako Errepublika	-	Interes espezifikoa duen herrialdea
Mali	-	Lehentasunezko interesa duen herrialdea
Niger	-	Interes espezifikoa duen herrialdea
Nigeria	-	Lehentasunezko interesa duen herrialdea
Senegal	Lehentasunezko herrialdea	Lehentasunezko interesa duen herrialdea
Lehentasunezko herrialdeak, guztira	3+1=4	4+5=9

Iturria: geuk egina MAEC (2005:70-71) eta MAEC (2006:150)-tik abiatuz.

¹⁶ DGPOLDEK egindako datu-baseetatik atera dugu atal horretako eta hurrengoetako GLOko funtsei buruzko informazioa, 2004, 2005, 2006, 2007 eta 2008 urteetako. Datuak egiaztatzeko, bi elkarrizketa egin ziren MAECekin eta AECIDekin.

¹⁷ 2005-2008ko Espainiako Lankidetzarako Gidaplana, 70-71. or.

¹⁸ Afrika Plana 2006-2008, 150. or.

Aztertutako bederlatzi herrialdeek lehentasuna edo interes espezifikoak dute I. APren ikuspegitik, Saharaz hegoaldeko herrialdeetatik Espainiara egindako migrazioetan jatorrizko herrialdeak eta/edo igarotze-herrialdeak direlako, interes ekonomikoko beste faktore batzuen artean. Alabaina, 2005-2008ko Gidaplanean, Mauritaniak, Senegalek eta Cabo Verdek soilik dute lehentasuna. Izan ere, lehentasunak ezartzeko, garapen ekonomiko eta sozial txikiena dutenak hautatzen ditu, eta aintzat hartzen du giza garapena erdiestera bideratutako politikak diseinatze eta gauzatzeko helmugako herrialdeek duten konpromisoa.

Herrialde horiekin sinatutako Belaunaldi Berriko Hitzarmen horiek migrazio-arloko lankidetzak zabala jasotzen dute, garapenerako lankidetzak barne hartzen duena, baina, egiatan, sinatutako bi aldeko hitzarmen horiek legezko langileen eta garapenerako laguntzaren kupo txiki eta zehaztugabeak eskaintzen dituzte, “trukean” legez kanpoko emigrazioari eusteko konpromisoa hartuz gero eta herritarren eta migrazio-bidean herri hartatik igaro diren beste herri batzuetako pertsonen aberriaraztea onartuz gero. Hori dela eta, egile batzuen iritziz (Alberdi, J. eta E. Bidaurretzaga, 2008b; Romero, E., 2008; Carballo de la Riva, M., 2009), Espainiak herrialde hauei ematen diena “laguntza baldintzatua” da.

2.2.2. Bideratutako funtsak

Espainiak Afrikara bideratutako garapenerako lankidetzak nabarmen handitu da azken urteotan. Zehazki, 2004 eta 2008 urteen artean % 280 handitu zen, eta Afrikara bideratutako GLOko funtsak beste eskualde batzuetara bideratutako laguntza baino azkarrago hazi dira. Joera hori positiboa da, errenta baxua duten herrialde gehien dituen kontinentea baita.

7. taulak aztertutako herrialdeei emandako GLOa erakusten du, jasotako funtsen zenbateko osoaren arabera ordenatuta. Herrialde horien artean, gogoratu dezagun Senegal, Mauritania eta Cabo Verde lehentasunezko herrialdeak direla 2005-2008ko Gidaplanean arabera, eta Senegal, Nigeria, Mauritania eta Malik dutela lehentasuna Afrika Planaren arabera. Ikusten denez, jasotako GLOko funtsen zenbatekoen ordena ez dator bat Gidaplanean zehaztutako lehentasunekin; deigarria da Nigeriak 149 milioi euro jaso izana (bigarren GLOrik handiena, Senegalen atzetik), kontuan izanda ez duela lehentasunik 2005-2008ko Gidaplanean, baina bai Afrika Planean.

07. taula. Mendebaldeko Afrikako hegoaldeko muga osatzen duten herrialdeei emandako GLOko funtsen bilakaera. 2004-2008, (zenbakiak milioi eurotan)						
			I. Afrika Plana			
			2005-2008ko Gidaplana			
Herrialdea	2004 ¹⁹	2005	2006	2007	2008	GLOa guztira
Mauritania	9,2	12,9	11,9	28,6	30,5	93,1
Cabo verde	6,9	2,4	3,8	15,1	15,4	43,6
Gambia	0,2	0,4	0,7	3,5	3,0	7,8
Ginea-Bissau	1,4	1,9	4,2	9,2	14,8	31,5
Ginea	-	0,7	1,5	1,7	5,6	9,5
Mali	1,0	5,5	7,3	12,8	39,3	65,9
Niger	0,7	13,4	3,8	6,0	26,8	50,7
Nigeria	0,6	3,0	110,1	0,3	35,0	149,0
Senegal	14,8	66,8	15,2	30,4	48,7	175,9
Guztira	34,8	107,0	158,5	107,6	219,1	627,0


Iturria: geuk egina, DGPOLEren datuetatik abiatuz.

Migrazio-politika herrialdeen eskumena denez, ikertutako herrialdeen bi aldeko Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO) baino ez dugu aztertuko, eta alde anitzeko funtsen analisisia alde batera utziko dugu, horien inguruan Espainiak duen erabakitze-maila txikiagoa baita. Gainera, bi aldeko laguntzak garrantzi handia du Mendebaldeko Afrikarekiko lankidetzan, eta horren adierazgarri da herrialde horiei emandako GLOa 2004-2008 urteen artean bildutako GLO guztiaren % 74 izan zela, 627,0 mila milioi euro-tik 466,6 mila milioi euro (ikus 8. taula). Beheranzko joera izan arren, laguntzaren zenbateko osoarekin alderatzen bada, deigarria da herrialde horietara bideratutako bi aldeko GLOaren pisu erlatiboa. 2004an, esaterako, Mendebaldeko Afrikara bideratutako GLO guztia bi aldeko GLOa zen; laguntzaren zenbateko osoarekin alderatuta, ordea, bi aldeko GLOa ez zen % 6ora iristen (ikus 1. grafikoa).

¹⁹ Zutabe bat gehitu da, 2004ko datuekin, 2005-2008ko Gidaplanetik aurrera Afrikara bideratutako GLOko funtsen hazkundea adierazteko.

o8. taula. Mendebaldeko Afrikako hegoaldeko muga osatzen duten herrialdeei emandako GLOko funtsen bideratzea. 2004-2008, (zenbakiak milioi eurotan)							
	2004	2005	2006	2007	2008	Guztira 2004-2008	%
Bi aldeko GLOa	34,3	99,3	145,0	76,3	111,7	466,6	74
Alde anitzeko eta biko GLOa	-	3,0	9,2	31,3	37,6	81,1	13
Alde anitzeko GLOa	0,5	4,7	4,3	-	69,8	79,3	13
Guztira	34,8	107,0	158,5	107,6	219,1	627,0	100

Iturria: geuk egina, DGPOLDEren datuetatik abiatuz.



Iturria: geuk egina, DGPOLDEren datuetatik abiatuz.

Ikertutako bi aldeko GLOaren barruan, Estatuko Administrazio Orokorrek kudeatutako funtsei helduko diegu, kudeatzaile nagusia delako eta Afrikako herrialdeekin migrazioa kontrolatzeko hitzarmenak sinatzen dituen delako. Estatuko Administrazio Orokorrek bideratutako bi aldeko GLOko funtsak bi aldeko GLOen % 82 dira, hau da, 383,1 mila milioi euro, 2004-2008 urteen arteko 466,6 mila milioi euroen aldean.

09. taula. Mendebaldeko Afrikako hegoaldeko muga osatzen duten herrialdeei emandako bi aldeko GLOko funtsen bilakaera, kudeatzailearen arabera. 2004-2008, (zenbakiak milioi eurotan)							
BI ALDEKO GLO-A	2004	2005	2006	2007	2008	Guztira 2004-2008	%
Estatuko Administrazio Orokorra	28,1	87,7	130,9	52,6	83,8	383,1	82
Autonomia-erkidegoak	4,4	8,4	11,7	18,8	23,9	67,2	14
Tokiko entitateak	1,8	3,2	2,1	4,9	4,0	16,0	3
Unibertsitateak	-	-	0,2	-	0,1	0,3	0
Guztira	34,3	99,3	144,9	76,3	111,8	466,6	100

Iturria: geuk egina, DGPOLDEren datuetatik abiatuz.

10. taulan, Estatuko Administrazio Orokorreko eragileek kudeatutako GLOaren banaketa ikusten da, eta nabarmentzen da laguntza asko barreiatu dela ministerioen artean. Hala, Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioak Mendebaldeko Afrikako laguntzaren % 33 baino ez du kudeatzen; Ekonomia eta Ogasun Ministerioak, % 50; Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak, % 10; Lan eta Immigrazioko Ministerioak, % 6; eta Barne Ministerioak, % 1. Sakabanaketa hori dela eta, beharrezkoak dira ministerioen arteko koordinazio-mekanismoak, baita MAEC ez diren ministerioek diruz laguntzen dituzten programak arretaz jarraitzea ere, pobrezia-aren aurkako borrokarako ekarpena aztertzeko, hori ez baita ministerio horiek zuzentzen dituzten politiken zuzeneko helburua.

10. taula. Mendebaldeko Afrikako hegoaldeko muga osatzen duten herrialdeei emandako bi aldeko GLOko funtsen bilakaera, ministerioen arabera. 2004-2008 (zenbakiak milioi eurotan)							
	2004	2005	2006	2007	2008	Guztira 2004-2008	%
Ekonomia eta Ogasun Ministerioa	5,0	64,1	106,9	0,1	14,9	191,0	50
Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioa	10,0	11,5	19,5	39,9	44,6	125,5	33
Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa	12,9	9,9	1,7	7,0	6,1	37,6	10
Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioa (Immigrazioa)	-	2,1	2,2	0,1	17,4	21,8	6
Barne Ministerioa	0,1	-	0,4	4,9	0,2	5,6	1
Gainerako ministerioak	0,1	0,1	0,2	0,7	0,5	1,6	0
Guztira	28,1	87,7	130,9	52,7	83,7	383,1	100

Iturria: geuk egina, DGPOLDEren datuetatik abiatuz.

3. GARAPENERAKO LANKIDETZA AFRIKAKO MIGRAZIO-KONTROLEKO INTERESEN ALDE ERABILI DA?

Aurreko atalean, belaunaldi berriko migrazio-hitzarmenek Espainian duten esparru orokorra eta Mendebaldeko Afrikara bideratutako bi aldeko GLOen zenbaki orokorrak bildu ditugu. Atal honetan, berriz, aztertu dugu garapenerako lankidetzak migrazio-politikarekiko menpekotasuna duen ala ez; horretarako, denboraren, eragileen eta laguntzaren kalitatearen irizpideak baliatu ditugu.

3.1. Espainiar estatuko eragile ezberdinen artikulazioa

Migrazioen inguruko ikuspegi globala izateko, hainbat funtzioen espezializazioa behar da praktikan (legezko migrazioa sustatzea, legez kanpoko migrazioa jartztea eta migrazioaren eta garapenaren arteko sinergiak baliatzea), baita eskumenak eragileen artean banatzea ere. Honela sinplifika daiteke:

- Estatuko segurtasuna, mugen kontrola eta legezko immigrazioaren aurkako borroka Barne Ministerioaren eskumenak dira.
- Legezko immigrazioaren ingurukoak Lan eta Immigrazioko Ministerioaren eskumenak dira; zehazki, etorkinak jatorrizko herrialdean kontratatzeari eta helmuga-herrialdean gizarteratzeari dagozkionak.
- Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioaren esku daude estatuaren kanpo-harremanak, eta berak koordinatzen du pobrezian murgildutako herrialdeen garapenerako koordinazioa.

Hiru ministerioek migrazio-arloko eskumenak dituzte, baina bakoitzak bere helburuak eta lehentasunak ditu, eta, ondorioz, gatazka eta kontraesan ugari

sor daitezke. Guk aztertu nahi dugu ea migrazio-politikak pobreziaren aurkako borroka berezkoa zuen esparrua (GLOa) hartu duen, lehenengo politika bigarrena baino askoz indartsuagoa baita. 11. taulak denboran erlazionatzen ditu herrialde horietan esku hartzen duten eragileak eta migrazio- eta garapen-harremenen lorpen nagusiak, azken urteotako etengabeko jarduera erakusteko. Taularen ondoren laburpen bat dago, eta han azaltzen dira azken urteotan herrialde bakoitzarekin sinatutako hitzarmen nagusiak. Hitzarmen horien harira, kasu guztietan, estatu-idazkariak edo goragoko karguren batek (ministroa, presidentea edo errege-etxeko ordezkaria) hainbat bisita ofizial egin zituzten herrialde horietara, eta herrialde horietako lehen ministroek bisita ofizialak egin zituzten Espainiara.

3.2. Espainiak Afrikako herrialde bakoitzarekin duen politikaren laburpena

3.2.1. Cabo Verde: baterako zaintza

2005-2008ko Gidaplanean, Cabo Verde lehenengo duen herrialdea da. 2006ko amaieran, Espainiaren Misió Diplomatiko Iraunkor bat sortu zen Cabo Verden. 2007an, immigrazio-arloko lankidetzarako esparru-hitzarmena sinatu zuten Espainiak eta Cabo Verdek. 2008an, lankidetzari buruzko hitzarmena sinatu zuen Cabo Verdek, delinkuentziaren aurka borrokatzeko eta bere jabetza eta eskumeneko itsas eremuak batera zaintzeko. Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak 5.985.195,63 euro bideratu zituen 2008an itsas zirkulazioa kudeatzeko sistema berria diruz laguntzeko, Garapenerako Laguntza Funtzaren kontura.

3.2.2. Gambia: lehenengoa eta alde batera utzia

2006an Gambia eta Gineako Errepublikarekin sinatu ziren belaunaldi berriko lehenengo hitzarmenak, baina geroztik ez da beste zer adostu herrialde horrekin.

3.2.3. Ginea Bissau: aberriratzetik belaunaldi berrira

2006ko urrian, parlamentuko taldeek gobernuari galdetu zioten zergatik zuen hain aplikazio-maila baxua Ginea Bissaurekin sinatutako aberriratze-hitzarmenak. Bi hilabete igaro ondoren, Espainiaren Misió Diplomatiko Iraunkor bat sortu zen Ginea Bissauko Errepublikan. 2008ko irailean, Espainiako Kontsuletxeko Ohorezko Bulegoa martxan jarri zen Cacheun, eta immigrazio-arloko lankidetzahitzarmena sinatu zen.

11. taula. Garapenerako lankidetzari, migrazio-arloari eta bi aldeko GLOko funtsei (Estatuko Administrazio Orokorrek emanak) dagokienez sinatutako hitzarmenen zerrenda											
	2003	2004		2005		2006		2007		2008	
		Hitzarmenak	GLOa	GLOa	Hitzarmenak	GLOa	Hitzarmenak	GLOa	Hitzarmenak	GLOa	Hitzarmenak
Cabo Verde		6-3 MM [4,2 MM Zoraren ezeztapena]	0.9 MM Lehentasuneko herrialdea Gidaplanean		2.3 MM	Immigrazioaren inguruko lankidetzaz hitzarmena	Immigrazioari buruzko lankidetzaz hitzarmena	10.8 MM	Cabo Verde itxas eremuak batera zainitzeko hitzarmena	10.4 MM	
Gambia		0.0 MM	0.1 MM	Immigrazioaren inguruko lankidetzaz hitzarmena	0.1 MM			1.2 MM		0.8 MM	
Ginea Bissau	Aberriatze-hitzarmena	0.5 MM	0.8 MM		3.2 MM			6.3 MM	Immigrazioaren inguruko lankidetzaz hitzarmena	4.0 MM	
Ginea		0.0 MM	0.3 MM	Immigrazioari buruzko lankidetzaz hitzarmena	0.1 MM			0.2 MM		0.2 MM	
Mali	1.0 MM	0.2 MM	1.4 MM	Lehentasuneko herrialdea APan	2.1 MM		Immigrazioari buruzko lankidetzaz hitzarmena	4.1 MM		8.2 MM	
Mauritania	Aberriatze-hitzarmena	7.1 MM	9.3 MM Lehentasuneko herrialdea Gidaplanean	Lehentasuneko herrialdea APan	5.5 MM		Lan-merkatuko migrazio-fluxuen inguruko hitzarmena	12.8 MM		12.0 MM [1.2 MM zoraren ezeztapena]	
Niger		0.4 MM	10.9 MM [10.1 MM zoraren ezeztapena]	Lehentasuneko herrialdea APan	1.0 MM		Garapenerako lankidetzaz hitzarmena	3.7 MM	Immigrazioari buruzko lankidetzaz hitzarmena	5.0 MM	
Nigeria	Aberriatze-hitzarmena (2001)	0.3 MM	1.2 MM	Lehentasuneko herrialdea APan	108.6 MM [107 MM zoraren ezeztapena]			0.2 MM		17.2 MM	
Senegal		13.2 MM	62.8 MM [5.3 MM zoraren ezeztapena] Lehentasuneko herrialdea Gidaplanean	Garapenerako lankidetzaz hitzarmena Bakarrik bidaiatzeko etorkinen emigrazioa prebentitzeko hitzarmena Lehentasuneko herrialdea APan	8.1 MM			13.1 MM		26.1 MM [13 MM zoraren ezeztapena]	

Iturria: geuk egina.

3.2.4. Gineako Errepublika: belaunaldi berriko bigarren hitzarmena

Gambiarekin batera, Espainiarekin belaunaldi berriko hitzarmenak sinatu zituzten lehenengo herrialdea izan zen. Agian horregatik, herrialde horrekiko harremanak ez dira oso aktiboak izan; izan ere, 2007an Gineako Errepublikan Espainiaren Misisio Diplomatiko Iraunkor bat sortzea izan zen hurrengo mugimendua.

3.2.5. Mali: belaunaldi berriko lankidetzara

2006ko lehenengo seihilekoan, Espainiaren Misisio Diplomatiko Iraunkor bat sortu zen Malin, eta Nazioarteko Lankidetzarako Agentzia Espainiarraren Lankidetzarako Bulego Tekniko bat Espainiak Maliko Errepublikan zuen Misisio Diplomatiko Iraunkorrean. 2007an hiru hitzarmen sinatu ziren, harreman politikoei, garapenerako lankidetzari eta migrazio-fluxuen kudeaketari buruzkoak. 2008an Espainia eta Maliko Errepublikaren arteko lankidetzaren hitzarmena eta migrazio-erloko lankidetzarako hitzarmena sinatu ziren, hurrenez hurren.

3.2.6. Mauritania: Marokoren urratsen atzetik

Mauritania Magreben zati da Espainiar estatuarentzat (hain zuzen, auzotasun berriko hitzarmena sinatu du harekin), Mendebaldeko Afrika ez bezala, nahiz eta Afrika Planaren barruan behin baino gehiagotan agertzen den haren helburu asko bat datozelako Mendebaldeko Afrikako Herrialdeen Komunitate Ekonomikoaren “gehi Mauritaniaren” helburuekin. 2006an, Ministro Kontseiluak bi hitzarmen sinatu zituen herrialde horrekin: alde batetik, Garapenerako Laguntza Funtzaren kontura, Mauritaniako Errepublika Islamiarrari 2.070.834 euroko kreditua ematea onartu zen, eguzki-energia erabiliko zuen landa-elektifikazio-proiektua diruz laguntzeko; bestetik, larrialdiko laguntza humanitario gisa 300.000 euro ematea onartu zen. Urte bereko azaroan, hauek guztiak aplikatzen hasi ziren: estradizio-hitzarmenak, atxilotuei laguntza emateko eta zigorra ezarritako pertsonak lekualdatzeko hitzarmenak, esparru zibileko eta merkataritza-esparruko laguntza judizialari buruzko hitzarmena eta zigor-esparruko laguntza judizialari buruzko hitzarmena. 2008. urtearen erdialdean, Ministro Kontseiluak onartu zuen, alde batetik, Espainia eta Mauritaniaren artean sinatutako zorra bihurtzeko programa eta, bestetik, Mauritaniako Errepublikak zuen zorra –Garapenerako Laguntza Funtzaren kredituetatik eratorria– barkatzea 29.763.835,38 AEBko dolarreko gehienezko kopururaino. Hilabete horretan bertan, Espainia eta Mauritaniako Errepublika Islamiarraren arteko adiskidetasunaren, borondate onaren eta lankidetzaren hitzarmena onartu zuen Ministro Kontseiluak.

3.2.7. Niger: lankidetzatik belaunaldi berrira

2007an Espainiaren Misio Diplomatiko Iraunkor bat sortu zen Nigerreko Errepublikan. 2008an, Espainiaren eta Nigerreko Errepublikaren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena argitaratu zen, eta, bi hilabete geroago, Nazioarteko Lankidetzarako Agentzia Espainiarraren Lankidetzarako Bulego Teknikoa sortu zen Nigerreko Errepublikan, Espainiaren Misio Diplomatiko Iraunkorrea. 2008ko uztailan, immigrazioari buruzko lankidetzarako esparru-hitzarmena argitaratu zen.

3.2.8. Nigeria: aberriratze-hitzarmena

Bi herrialdeek sinatutako bi aldeko hitzarmenak 2001eko aberriratze-hitzarmenaren mende daude oraindik. Lehen Afrika Planak iraun zuen urteetan hitzarmen bakarra sinatu zen Nigeriarekin, elkarren arteko inbertsioak sustatzeko eta babesteko, eta 2006ko otsailan argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean. Hala eta guztiz ere, Garapenerako Laguntzaren bigarren hartzailea da, Espainiarekin zuen zor handi baten ezeztapenak mesede egin baitzion.

3.2.9. Senegal: “seme bihurria”

Esan dezakegu Senegal dela Espainiarekiko bi aldeko hitzarmenen negoziatziotik etekin handiena ateratzen ari den herrialdea. Belaunaldi berriko hitzarmena negoziatzen hasi zen lehenetariko herrialdea izan arren, gaur egun oraindik ez du ezer sinatu. Bitartean, beste gauza batzuk lortuz joan da; esaterako, Garapenerako Laguntza Funtseko (GLF) kredituetatik eratorritako zorra (Senegaleko Errepublikari zegokiona) murriztu du, 12.221.919,24 dolarreraino, eta gehienez 20 milioi euroko kreditu-lerro bat ematea lortu zuen 2006an, GLFren kontura diruz lagunduko dituen garapenerako proiektu txikietarako. Era berean, Ministro Kontseiluak adostu zuen Senegalen eta inguruko beste herrialde batzuetan publizitate-eta komunikazio-kanpaina bat egitea legez kanpoko immigrazioari buruzkoa, eta milioi bat euro inguruko kostua duena.

2007an, Dakarreko (Senegal) kontsuletzeko bulegoaren sorrera argitaratu zen; kontsuletxe orokorraren kategoria du. Bi hilabete geroago, Ministro Kontseiluak hitzarmen bat sinatu zuen. Horren bidez, Garapenerako Laguntza Funtseko kredituetatik eratorritako zorra barkatu zioten Senegaleko Errepublikari, 1.956.419 euroko mugaraino.

2008an, Ministro Kontseiluak onartu zuen, alde batetik, Espainia eta Senegalen artean sinatutako zorra bihurtzeko programa eta, bestetik, Senegaleko Errepublikak zuen zorra –GLFren kredituetatik eratorria– barkatzea 29.809.352 AEBko

dolarreko eta 46.170.500 euroko gehienezko kopururaino. Urte berean, Espainia eta Senegalen arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena onartu zen, baita baka- rrik bidaiatzen duten adin txikiko senegaldarren emigrazioa prebenitzeko, haiek babesteko, aberriatzeko eta gizarteratzeko lankidetzeta-hitzarmena ere. Urtearen amaieran Ministro Kontseiluaren hitzarmena sinatu zen, zeinaren bidez Senega- lera 146.000 euro bidaltzea onartu baitzen, larrialdiko laguntza humanitario gisa.

3.2.10. Hitzarmenik sinatu ez duten beste herrialde batzuk

Azpirarragarriak dira Mendebaldeko Afrikako bi herrialderi emandako kredi- tuak: alde batetik, Burkina Fasori emandako 3.645.080 euroko kreditua, sistema fotovoltaikoen hornikuntza eta instalazioa diruz laguntzeko emana Garapenera- ko Laguntza Funtsaren kargura; bestetik, Ghanako Errepublikari emandako 1.999.911 euroko kreditua, mugako bideo-zaintzako sistema digitala diruz la- guntzeko emana Garapenerako Laguntza Funtsaren kontura.

3.3. Laguntzaren kalitatea: migrazio-kontrolarekin erlazionatutako proiektuak²⁰

3.3.1 Ekonomia eta Ogasun Ministerioak kudeatutako GLOa

Ekonomia eta Ogasun Ministerioa da Garapenerako Laguntza Ofizialeko bi alde- ko funts gehien bideratu dituen Estatuko erakundea, berak kudeatzen baitu he- rrialdeen kanpo-zorra. 2004-2008 urteetan 191,1 mila milioi euro eman zituen, zorra ezeztatu eta berregituratzeko. Guztira, zorraren ezeztapen eta berregitu- raketak herrialde horien bi aldeko Garapenerako Laguntza Ofizialaren % 41era iritsi ziren 2004-2008 urteen artean.

²⁰ Hainbat ministeriotatik bi aldeko GLOaren funtsekin finantzatutako proiektuen identifikazioa Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioaren menpe dagoen Garapenerako Politikak Planifikatu eta Ebaluatzeko Zuzendaritza Nagusiak (GPOLDE) egindako datu baseak oinarri hartuta egin da. 2004, 2005, 2006, 2007 eta 2008 urteei dagokien datu baseak aztertu dira. Txosten honetan aipatzen diren lankidetzeta proiektuak identifikatzeko hegoaldeko mugan dauden eta txostenean zehazten diren he- rrialdeetan GLO funtsekin finantzatutako proiektuak bilatu dira eta euren tituluak ondorengo hitzekin erlacionatuak daude: migrazioa, inmigrazioa, emigrantea, emigratu, muga, aberriatzea, aberriatuak, onarpena, polizia, errefuxiatua, asiloa, e.a. Proiektuak identifikatutakoan aukeratu direnak helburu, harrera-herrialdeak, funtsen zenbatekoa dela eta ikerketa honen helburuarekin lotura izan dezakete- nak dira.

12. taula. Mendebaldeko Afrikako “hegoaldeko muga” osatzen duten herrialdeei zorra ezeztatzeko eta berregituratzeko eragiketak, 2004-2008, (zenbakiak milioi eurotan)

Herrialdea	Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren GLOa (zorrarekin erlazionatutako eragiketak) (2004-2008)	Lehentasunezko herrialdea Lankidetzarako Gidaplanean	Lehentasunezko herrialdea I. Afrika Planean	Migrazio-arloko Belaunaldi Berriko Hitzarmena?	Bi aldeko GLOa, guztira (2004-2008)	Zorrarekin erlazionatutako eragiketen % /Bi aldeko GLOa, guztira
Mauritania	1,3	Bai	Bai	Aberriratzea	63,8	2
Cabo Verde	4,2	Bai	-	Bai	37,0	11
Gambia	-	-	-	Bai	3,4	0
Ginea	-	-	-	Bai	1,5	0
Ginea Bissau	-	-	-	Bai	22,0	0
Mali	-	-	Bai	Bai	34,7	0
Niger	11,0	-	-	Bai	26,2	42
Nigeria	106,8	-	Bai	Aberriratzea	128,4	83
Senegal	67,8	Bai	Bai	-	149,7	45
Guztira	191,1				466,7	41

Iturria: geuk egina, DGPOLDE, MAEK (2005) eta MAEC (2006)-en datuetatik abiatuz.

Onura gehien jaso duten herrialdeak Nigeria eta Senegal izan dira. Nigeriak lehentasuna zuen I. Afrika Planean, baina ez Gidaplanean. Senegal bi planetan zen lehentasunezko herrialdea. Nigerren kasua ere deigarria da, zorrarekin erlazionatutako eragiketek osatzen duten portzentajea denbora-tarte horretan jasotako bi aldeko Garapenerako Laguntza Ofizialaren % 42 delako, gutxi gorabehera.

3.3.2. Barne Ministerioak kudeatutako GLOa

Barne Ministerioak paper garrantzitsua jokatzen du migrazio-politikan, baina ez da hala garapenerako nazioarteko lankidetzaren politikan. Hala eta guztiz ere, nabarmena da Espainiara egiten diren migrazioen jatorrizko herrialdeen eta igarotze-herrialdeen garapenerako lankidetzaren pisu erlatiboa.

Garapenerako lankidetzaren politikak eta migrazio-politikak bat egiten duten esparruetan oinarritzen da garapeneraren aldeko politiken koherentziaren printzipioaren hausnarketa. Egia esan, garapenerako lankidetzaren ez da Kanpo Arazoe-


tarako Ministerioaren eskumenekoa soilik; hortaz, Barne Ministerioak ere jardun dezake garapenerako lankidetzan. Baina betiere haren helburutik urruntzen ez bada, pobreziaaren aurkako borrokatik, alegia. Hala ere, mugen kontrolera zuzendutako esku-hartzeak ikusten dira. Arazoa ez da mugen kontrola diruz laguntzeko funtsak bideratzea, baina, gure ustez, eztabaidagarria da funts horiek GLO gisa hartzea, GLOen helburua ez baita pobreziaaren aurka borrokatzea. GLOen koherentzia faltaren erakusgai da hori. 13. taularen arabera, garapenerako laguntza ofizialeko bost milioi euro bideratu dira Barne Ministerioak kudeatzen duen polizia-lankidetzara.

13. taula.- Mendebaldeko Afrikako hegoaldeko muga osatzen duten herrialdeetan polizia-lankidetzako ekintzak diruz laguntzeko Barne Ministerioak emandako bi aldeko GLOko funtsak. 2004-2008 urteak, (zenbakiak milioi eurotan)						
Herrialdea	Polizia-lankidetzarako GLOa	Lehentasunezko herrialdea Lankidetzarako Gidaplanean	Lehentasunezko herrialdea I. Afrika Planean	Migrazioaren inguruko Belaunaldi Berriko Hitzarmena?	2004-2008 bi aldeko GLOa, guztira	Polizia-lankidetzako ekintzak / GLOa, guztira
Mauritania	1,8	Bai	Bai	Aberriratzea	63,8	2,8
Cabo Verde	0,5	Bai	-	Bai	37,0	1,4
Gambia	0,4	-	-	Bai	3,4	11,8
Ginea	0,1	-	-	Bai	1,5	6,7
Ginea Bissau	0,2	-	-	Bai	22,0	0,9
Mali	0,4	-	Bai	Bai	34,7	1,2
Niger	-	-	-	Bai	26,2	0,0
Nigeria	0,1	-	Bai	Aberriratzea	128,4	0,1
Senegal	2,1	Bai	Bai	-	149,7	1,4
Guztira	5,6				466,7	1,2

Iturria: geuk egina, DGPOLDE, MAEK (2005) eta MAEC (2006)-en datuetatik abiatuz.

Deigarria da Mendebaldeko Afrikako herrialde guztiek, Nigerrek salbu, polizia-lankidetzarako GLOko funtsak jasotzea, bakoitzak bere neurrian. Senegal, Mauritania, Cabo Verde, Gambia eta Mali dira funts gehien jasotzen duten herrialdeak. Ondoko mapak erakusten du herrialde horiek migrazioarako kokapen geografiko estrategikoa dutela mugen kontrolaren ikuspegitik.

01. mapa. Aztertutako herrialdeen kokapen geografikoa



GLOko funtsak dituzten Barne Ministerioako proiektuak jasotzen ditu Garapenerako Politikak Planifikatu eta Ebaluatzeko Zuzendaritza Nagusiaren (DGPOLDE) datu-baseak, “Polizia-lankidetzak” gisa (ikus I. eranskina). 2005ean eta 2006an, lankidetzak hori honela definitu zen: *“Agintari eta polizia espezializatuak prestatzea eta mota askotako polizia-materiala erostea eta bidaltzea erakunde eta segurtasun-taldeen eraginkortasun poliziala hobetzeko eta bakea lortzen laguntzeko”*. Eragiketa horien benetako motibazioa baino gehiago, justifikazio bat dirudi “bakea lortzen laguntzea”k, herrialde horiek ez baitaude gerran. 2007an eta 2008an ez da azalpenik azaltzen.

GLOko funtsen banaketa denboran zehar nolakoa izan den aztertzen badugu, deigarria suertatzen da oso 2007. urtea. Bada, urtebetean % 1.370 handitu ziren polizia-lankidetzarako funtsak, 2006ko 355.286 eurotik 2007ko 4.851.269 euro-raino. Senegal eta Mauritania izan ziren hartzaile nagusiak.

14. taula. Mendebaldeko Afrikako hegoaldeko muga osatzen duten herrialdeen polizia-lankidetzara bideratzeko atera den GLOa (zenbakiak eurotan)						
Herrialdea	2004	2005	2006	2007	2008	AOD Guztira
Mauritania	24.309,6	-	19.051,0	1.709.233,1	61.343,4	1.813.937,0
Cabo Verde	22.822,7	18.606,3	52.941,1	389.888,5	22.682,0	506.940,6
Gambia	-	-	28.244,6	333.173,3	35.355,6	396.773,5
Ginea	-	-	54.118,0	64.043,8	10.799,1	128.960,9
Ginea Bissau	-	-	88.446,8	67.598,3	13.863,0	169.908,1
Mali	-	-	28.611,1	326.700,3	11.538,7	366.850,1
Niger	-	-	3.800,0	-	-	3.800,0
Nigeria	36.474,6	-	-	18.204,4	5.404,5	60.083,5
Senegal	-	-	78.773,5	1.942.427,5	48.624,6	2.069.825,7
Guztira	83.606,9	18.606,3	353.986,1	4.851.269,2	209.610,8	5.517.079,3

Iturria: geuk egina, DGPOLDEren datuetatik abiatuz.

Gainera, 2007an zenbait eremu geografikotan “polizia-lankidetzako ekintzak” diruz laguntzeko bideratu ziren bi aldeko GLOko funtsak alderatzen baditugu (ikus 15. taula), ohartuko gara Saharaz hegoaldeko Afrikak jaso zuela polizia-lankidetzaren gisa Espainiak emandako laguntzaren % 79. Are gehiago, Mendebaldeko Afrikak jasotzen du Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeen artean Barne Ministerioak polizia-lankidetzaren moduan ematen duen ia laguntza guztia (% 99).

15. taula. 2007ko polizia-lankidetzaren eremu geografikoaren arabera, (zenbakiak milioi eurotan)				
	Eremu geografikoa	Polizia-lankidetzarako emandako bi aldeko GLOa	2007. urtean emandako bi aldeko GLOa, guztira	Polizia-lankidetzaren % bi aldeko GLO osoaren aldean
Polizia-lankidetzako ekintzak	Iparraldeko Afrika	0,1	135,1	0,1
	Saharaz hegoaldeko Afrika	4,9	203,1	2,4
	Erdialdeko Amerika	0,5	385,8	0,1
	Hegoaldeko Amerika	0,6	259,2	0,2
	Hegoaldeko Asia	0,2	22,1	0,9
	Ekialdeko Asia	-	64,3	0,0
	Ekialde Ertaina	-	57,1	0,0
	Garapen bidean diren herrialde zehaztugabeak	-	232,2	0,0
	Latinoamerikako IE	-	47,7	0,0
	Europa	-	62,4	0,0
	Erdialdeko Asia	-	12,9	0,0
	Afrika zehaztugabea	-	12,6	0,0
	Asia zehaztugabea	-	2,4	0,0
	Ozeania	-	0,1	0,0
2007. urtea, guztira		6,3	1.497,0	0,4

Iturria: geuk egina, DGPOLEren datuetatik abiatuz.

Polizia-lankidetzarako 2007an Saharaz hegoaldeko Afrikari emandako bi aldeko GLOko funtsak (4,9 mila milioi €) polizia-lankidetzarako bi aldeko GLO osoaren (6,3 mila milioi €) % 79ra iritsi ziren.

Egindako ikerketak adierazten duenez, pobrezia-aren aurkako borrokari baino gehiago Barne Ministerioko interesei lotuta daude Barne Ministerioak berak kudeatutako laguntza-funtsak.

3.3.3. Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak kudeatutako GLOa

Datuak aztertzean (ikus II. eranskina), hegoaldeko muga osatzen duten herrialdeetako mugen kontrol-politiketan eragina izan dezaketen proiektuetan eta pertsonen migrazio-mugimenduetan ondorio zuzenak eragin ditzaketen proiektuetan jarri dugu arreta.

16. taula. Mendebaldeko Afrikako hegoaldeko muga osatzen duten herrialdeei Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak emandako bi aldeko GLOko funts garbiak. 2004-2008, (zenbakiak milioi eurotan)						
Herrialdea	2004	2005	2006	2007	2008	Guztira 2004-2008
Mauritania	2,4	5,2	0,1	3,7	4,1	15,5
Cabo Verde	0,1	1,4	0,4	2,8	1,2	2,9
Mali	-	-	-	-	0,2	0,2
Niger	0,4	-	-	-	-	0,4
Nigeria	-	0,1	-	-	-	0,1
Senegal	11,0	6,1	1,3	0,5	0,7	19,6
Guztira	12,9	10,0	1,8	7,0	6,2	37,9

Iturria: geuk egina, DGPOLDEren datuetatik abiatuz.

Senegal, Mauritania eta Cabo Verde dira Industria, Merkataritza eta Turismo Ministeriotik GLOko funts gehien jaso dituzten herrialdeak. Azkeneko bi herrialdeei dagokienez, nabarmentzen diren bi kontu daude:

- 2004-2008 urteen artean, GLOko 10,4 mila milioi euro jaso zituen Mauritaniak Nouadhibouko kaia hobetzeko. Portu hori oso kala garrantzitsua da Espainiako eta Europako arrantza-ontzientzat, eta Europarantz doazen migratzaileen ontzien irteera-puntu nagusia da²¹. Hiri berean, aberriraturako etorkinen abegi-zentroa eraiki zen 2006an, Defentsa Ministerioko eta AECIDeko funtsei esker. Espainiaren Afrikako mugak hedatu izanaren adibide argia da hori.

²¹ Adierazitako diru-kopuruez gain, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak 18.292.196 euroko funts gehigarriak emateko konpromisoa hartu zuen, Nouadhibouko arrantza-portua berritzeko, 2008 urtean.

17. taula. Noadhiboura (Mauritania) bideratutako eta bi aldeko GLOko funtsekin diruz lagundutako MICTren proiektuak. Zenbakiak milioi eurotan		
2004	Portua hobetzea, petrolio-produktuak hornitzeko	2,7
2005	Proiektua handitzea, petrolioaren hornikuntza bermatzeko	3,5
	Portua hobetzea, petrolio-produktuak hornitzeko	0,7
2008	Nouadhibouko portuaren balizajea berritzea	0,6
	Nouadhibouko portuaren zentral elektrikorako hornikuntza	2,9
	Guztira	10,4

Iturria: geuk egina, DGPOLEren datuetatik abiatuz.

2008an, GLOko 6 mila milioi euro Cabo Verderi emateko konpromisoa hartu zen, *“Itsas zirkulazioa kontrolatzeko sistema hornitzeko, instalatzeko eta martxan jartzeko”* proiektua diruz laguntzeko. Zenbateko hori 2008an emandako bi aldeko GLOko laguntzaren % 50 da gutxi gorabehera²² (ikus II. eranskina). Urte berean, Espainiak hitzarmen bat sinatu zuen Cabo Verderekin, herrialde afrikarraren jabetzako eta eskumeneko itsas eremuak batera kontrolatzeko. Berrito ere, mugak kontrolatzeko lankidetzaren aurrean gaudela dirudi, eta ez garapenerako nazioarteko lankidetzaren aurrean, GLOko funtsekin diruz laguntzen den arren.

3.3.4. Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioak kudeatutako GLOa

Ministerio horrek GLOko funtsekin diruz lagundutako proiektuak berrikustean, zaila da pentsatzea horietako batzuek garapenerako helburuak lortzen lagundu dutela (ikus III. eranskina). Adibidez, Espainiak Nigerian eta Senegalen dituen enbaxaden administrazio-gastuak diruz laguntzera bideratutako funtsak:

²² Horrez gain, 2006az geroztik, GLOko funtsetako 5.239.560 euroekin diruz laguntzen ari da “Isla de la Sal uharteko aireportuaren balizajea” proiektua, Espainiako zenbait enpresa egiten ari direna.

18. taula. MAECek GLO gisa diruz lagundu dituen enbaxaden administrazio-gastuen bilakaera, 2004-2006, (zenbakiak eurotan)			
Urtea	Herraldea	Proiektuaren izenburua	Emandako GLOa
2004	Nigeria	Enbaxaden administrazio-gastuak	12.000
	Senegal	Enbaxaden administrazio-gastuak	39.338
2005	Senegal	Administrazio-gastuak	36.100
2006	Senegal	Enbaxaden administrazio-gastuak	36.100
